

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2013ko martxoaren 20a. IX. urtea. 2.564. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

197/2006 doktrinari aurka egiteko manifestazioak deitu dituzte gaurko

Europako Giza Eskubideen Areto Nagusiak gaur aztertuko du doktrina, eta Tolosan eta Leitzan mobilizazioak izango dira; gaiari buruz hitzaldia eman berri dute Onintza Ostolazak eta Oihana Barriosek, Tolosaldeko Herrira-k antolatuta 06

Onintza Ostolaza

Abokatua

«Gaurkoa bista publikoa da; epe bat irekiko dute sententziarako»

Oihana Barrios

Psikologoa

«Horrelako karga bat eramatea zaila da presoentzat»



Tolosaldeko Herrira ekimenak antolatuta, Ostolazak eta Barriosek hitzaldia eskaini zuten Tolosan. A. MAZ

Amalur jardunaldiek Asia ezagutzeko aukera eskainiko dute

Tolosako Ekinbide Etxeak zortzigarren aldiz antolatu ditu jardunaldiak; gaur, Anjel Cuervo eta Fabiola Jubinen hitzaldia izango da 02

Artubi elkarteak prest du urteko egitaraua

Bedaioiko kultur elkartearen larunbateko hitzordua emakumeentzat izango da 05

Leitzar gazte batek epailearen aurretik pasa behar du, gaur

Greba orokorraren bezperako gertakarien harira Iruñeko Auzitegian deklaratu behar du; ezker abertzaleak mobilizazioak deitu ditu 07

Bai Euskal Herriari-ren eskaerak onartu ditu udalak

Amasa-Villabonako Udalak Euskal Herriaren eta ikurrinaren alde proposatutako aldaketak onartu ditu 04



HITZAK harpidedunentzat **bi sarrera pare** ditu

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek eskeiniko duten emankizunerako

Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.



zozketa



Martxoak 24 - igandea
17:00
Asteasuko kiroldegia

→ **Laburrak****Zazpiak bat futbol talde ohiaren urteko bazkaria**

GIZARTEA › Zazpiak Bat futbol talde ohiko kideek, urteroko bazkaria eta ospakizun eguna izango dute, datorren martxoaren 23an, larunbatean. 13:00etan meza ospatuko dute Tolosako Sakramentinoen elizan, hildako taldekideen omezez. Ondoren, bazkaria izango da Eguzkitza sagardotegian.

Jazz gaua izango da, bihar, Orbela tabernan

GIZARTEA › Orbelako Gauak egitasmoaren barruan, jazz musikaz gozatzeko aukera izango da, bihar gauean. Brasstew & DJ izeneko bikote donostiarrak izango da Orbelako agertoki txikian. Batetik, Mikel Valcarlos ariko da tronpetarekin eta programazioekin, eta bestalde, Ibon Irijoak saxofoi tenorea joko du. 22:30ean hasiko da emaldia.

Tolosaldea institutuan, dohako ikastaroak

HEZKUNTZA › Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuak langabetu nahiz langileentzako dohako ikastaroak antolatatu ditu, apirilera. *Panel operadoreen programazioa*, *Txirbil harroketa bidez mekanizatutako produktua egiaztatzea* eta *Instalazio frigorifikoaren konfigurazioa eta kalkulua* izango dira ikastaroak. Izena ikastetxean bertan eman daiteke, edo 943 6511 47ra deituta.

Lara Arruabarrena Miamiako txapelketatik kanpo

KIROLA › Lara Arruabarrena tenislari tolosarrak, Allie Klück estatubatuar gaztearen aurka galdu du Miamiako lehen partida, 6-4 eta 7-5eko markagailuarekin, eta txapelketatik kanpo geratu da horrela. Alpatzekoa da, Lara Arruabarrenak bi egun zeramatzala geldirik, entrenatu gabe, anginetako minnez egon baita.

Asia zeharkatuko dute Amalur jardunaldiek, Mekong ibaiaren bidean

Tolosako Ekinbide Etxeak zortzigarren aldiz antolatu ditu, «mundua Tolosara ekartzeko» saioak

Itzea Urkizu

Asiako Mekong ibaiak, Dza Chu, Lancang Jiang, Mae nam Kong, Tonle Thom eta Cuu Long izenak ere hartzen ditu, zeharkatzen dituen 4.900 kilometroetan barrena; ibilbide luze horretan hartzen dituen Tibet, Txina, Thailandia, Laos, Birmania, Kanbodia eta Vietnam deskubritzeko hainbat giltza eskainiko dituzte, gaurtik ostiralera bitarte, Amalur jardunaldiek.

Tolosako Ekinbide Etxea duela zortzi urte hasi zen natura, bidaia eta antropologia oinarri hartuta, Amalur jardunaldiak antolatzen, eta Ekialdeko Afrika, Nepal, Artikoa, Amazonia, Basamortuak, Japonia eta munduko ibaiak izan dituzte, urte hauetan guztietan, hizpide.

Horrela, beraz, gaurtik ostiralera bitarteko saioetan, Asiako paisajea, ohiturak, bizimodua eta bitxikiariak ezagutzeko aukera izango da Topic zentroan. «Erronka berria dugu, aurten, esku artean. Munduko ibaietan barrena ibili eta gero, Asia zeharkatzen duen Mekong ibaia aukeratu, eta bere urek bustitzen dituzten lurraldeak ezagutzeko ditugu», azaldu dute antolatzaileek.

Ibaiadar baten ertzetik

Gaur bertan, 19:30ean, *Mekong ibaia, tsunamiaren ondoren bizitza* hitzaldia eskainiko dute Anjel Cuervo eta Fabiola Jubin tolosarrak.

Bihar, berriz, Luis Miguel Dominguez madrildarrak *Vietnam: Naturaleza secreta* saioa eskainiko du ordu eta leku berean.

Azkenik, ostiralean, *Las montañas escondidas de China* hitzaldia izango da, Eduardo Martinez de Pison-en eskutik.



Asiako sei herrialde zeharkatzen ditu Mekong ibaiak, bere 4.900 kilometroetan barrena. HITZA

Anjel Cuervo • Bidaia

«Etxean zaudela bidaiekin ameste horrek izugarri balio du»

I. Urkizu

Mekong ibaia, tsunamiaren ondoren bizitza hitzaldia eskainiko dute, gaur, Topic zentroko aretoan, Anjel Cuervo eta Fabiola Jubin tolosarrak.

Urte beteko bidaia abiatu bezain laster harrapatu zituen tsunamiak, eta esperientzia hura hizketa gai izango dute.

Zer entzunahal izango da, gaur, zuen saioan?

Amalurreko jardunaldi hauen gaia Mekong ibaia da, eta gure kasuan, 2004-2005ean izandako esperientzia kontatuko dugu. Mekong ibaiak zeharkatzen dituen sei herrialdeak zeharkatu genituen, eta gure bidaia esperientziaren aurkezpen bat izango da. **Tsunamiak bidaia erdian harra-**

patu zintuzten. Bidaia goitik behera aldatu zizuen horrek?

Bai eta ez. Mekong ibaiaz gain, ETBrako hiru dokumental egite-
ra ere joan ginen, eta urte betera-
ko bidaia aurreikusitua genuen. Bi-
daia honi abenduaren 14an ekin
genion, eta hasi berritan, Bangko-
ken geundela, itsasontzi txiki ba-
tean bidaia txiki bat hartu ge-
nuen Phi Phi Irlak, paradisu-
lekuak ezagutzeko. Tsunamiak
hantxe harrapatu gintuen, eta zer
egin erabakitzen egon ginen.
Urte beteko bizitza proiektu bat
uztea zen aukera bat, eta guk ego-
nezin handia genuen. Azkenean,
ordea, bizitzak beste aukera bat
eman zigula ikusi genuen, eta go-
zatzen saiatu behar genuela. Be-
raz, moto bat hartu eta Thailan-
dia zeharkatu genuen. Ondoren,

beste herrialde guztiak ere ezagu-
tu genituen.

Bizitzeko filosofia bat da zuentzat bidaia?

Guretzat aisia da, baina aisaldi
hori zenbat eta luzeagoa izan, or-
duan eta hobe. Horrek ez du esan
nahi beti bidaiatzen egon behar
dugunik; askotan, etxean zaudela,
bidaiekin ameste horrek ere,
izugarri balio du. Beraz, bien arte-
ko uztartze horrek balio du. Orain
hirugarren alaba izan berri dugu,
eta bai, gure gogoetako bat da bi-
zitzan bidaiatzen jarraitzea eta
hori transmititzea.

Egitasmo berri bat ere baduzu esku artean, ezta?

Bai. *Familia bidaia* du izena, eta
ETBrek inari gara lanean, doku-
mentalak grabatuz. Honek ere lu-
zerako jotzea espero dugu.

↓ Iragarki laburrak**LAN ESKAINTZAK**

Ileapaindegia. Tolosako ilea-
paindegi batean lan egiteko, espe-
rientzia handiko bi pertsona
behar dira; bat lanaldi osoan lan
egiteko, eta bestea lanaldi erdi-
rako. Interesa dutenek, deitu
625 70 50 59 telefono zenbaki-
ra.

LAN ESKAERAK

**Garbiketa eta zaintza zerbi-
tzua.** Orduka lan egiteko, espe-
rientzia handiko garbiketa eta
zaintza zerbitzua eskaintzen du
emakume euskaldunak. Etxeko
garbiketan, plantxan, sukalde-
an, nahiz elkarteak, tabernak
eta antzekoak garbitzen ere es-

perientzia du. Haurrak eta adi-
neko pertsonak zaintzeko zerbi-
tzua ere bai. Autoarekin. 699 59
9129 edo 653 72 92 47.

Etxeko lanetarako. Etxeko la-
nak egin edota haurrak zaintze-
ko, emakume euskaldunak bere
burua eskaintzen du. Autoa ba-
dauka. 943 69 68 82 / 606 52
19 92.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

«Natura boladan dago, baina oso hiritarrak gara»

Benjamin Sanz ugaztunetan aditua da eta hirugarren aldiz izan da Zizurkilgo Fraisoro eskolan gaiari buruzko ikastaroa ematen

Landa eremutan bizi diren askok inguruan dituzten animaliei buruz ez dakitela dio

Imanol Garcia Landa Zizurkil

Hirugarren aldiz izan da aurten Benjamin Sanz Zizurkilgo Fraisoro eskolan, Baso Kudeaketa eta Natura Ingurunea zikloan faunari buruzko ikastaroa emanez. Ugaztunetan aditua da Sanz, autodidakta, eta garbi du ezjakintasun handi dagoela animalia horien inguruan: Natura boladan dago, baina oso hiritarrak gara».

Ikastaroaren sarreran «oinarriko» azaltzen die, jendea «oso nahastuta» baitago: «Jendeak uste du aurreko mendearen hasieran, bere aitona-amonak ingurumenarekin harmonian bizi zirela, eta hori ez da egia. XIX. mendeko industrializazioak guztia garbitu zuen». Egun, Iberiar penintsulan orain 60 urte baino hamar milioi baso hektarea gehiago daudela esan du. «Tasio filman ikusten den bizimodu ereduak ez du inon iraun», dio Sanzek. «Gara horietan bidizun guztiak akabatzen zituzten. Biziraun egin behar zuten, eta bazekiten nola harrrapatu animaliak. Horrelako hiruzpalau zahar geratzen dira, ez gehiago».

Bizimodu hori amaitzearekin batera, biodibertsitatean eragina izan duela esan du Sanzek: «Igaraba, esaterako, gero eta zabalduago dago. Laster, hemengo ibaietan ere izango da». Orain errekak eta ibaiak garbitzen ari direla dio: «Galdetu aitona-amonai nolakoak ziren ibaiak orain 30 edo 40 urte: zikinkeriz beteta zeuden; ibai hilak ziren». Eta igarabaren inguruan ere badu informazio bitxirik: «Batetik, jateko oso goxoa zen. Bestetik, Garizuman ezin da haragirik jan, baina igaraba ibaian bizi zenez, elizak esaten zuen arraina zela eta jan zitekeela. Horrez gain, bere azalak asko balio zuen. Beraz, asko ehizatzen ziren». Egun igaraba, babestua badago ere, oso arrunta eta ugaria dela dio Sanzek.

Beste hainbat animalia ere ugaltzen ari direla esan du: «Aze-

ri mordoia dago, eta baita basurdea ere. Halere, hemen ez duzue beste zenbait lekutan dagoena. Bartzelona eta Zaragoza hiriburuetatik basurdeak ateratzen ari dira. Orkatza ere ugaltzen ari da».

Faunaren egoera, hobera

Orokorrean faunaren egoera asko hobetu dela dio Sanzek. «Animalia horien zundaketa guztiak publikatuta daude, baina jendeak gero ez du horren berririk izaten». Landa eremutan bizi diren askok bere inguruan dauden animaliei buruz ez dakitela dio Sanzek: «Animalia basatiak ezkutuan ibiltzen dira. Bestalde, ez gara lehen bezala bizi. Lehen, denetatik harrapatzen zuten eta bazekiten animalia bakoitzaren zaporea eta nola sukaldatzen zen: azeria, igaraba, azkonarra, muskerra, sugeak, uretako arratoia... Beharra zuten eta denetatik jaten zuten. Nafarroako sukaldaritza liburu batean putrea nola sukaldatzen den azaltzen duen erreze-ta dago».



«Tasio» filmaren garaietan, jendeak bizidun guztiak akabatzen zituen»

«Dena hemen dugu; Iberiar penintsula munduko lekurik zoragarriena da»

BENJAMIN SANZ
Faunaren aditua

datzen den azaltzen duen erreze-ta dago».

Egun, artzaina edo baserritarra denak, lehengoko bizimodu hori ez duela dio Sanzek: «Egunez lan egiten du, eta ez daki gauzez gertatzen den. Gainera, aztarnak eta oinatzak irakurtzen ez dakenez, agian ez daki bere ganbaran lepozuri bat duela». Tolosaldean hainbat animalia bizi direla azaldu du: azkonarra, lepozuria, katajineta, basakatua, erbinu-



Benjamin Sanz, erdian, Fraisoroko ikasleei azalpenak ematen azken ikastaroan egindako irteeran. HITZA

dea, basurdea, orkatza, erbia, untxia,...

Animalia horiek gautarrak direla eta ezkutuan egoteak bere bizirautean sekulako garrantzia dutela gaineratu du Sanzek. Bestalde, ehizan aritzen diren gehienek «ideiarik ez» dutela esan du: «Uste dute asko dakitela. Oso tardeka norbait topatzen duzu, aztarnak jarraitzen dakiena; eta justu, horixe da eskopetaria ez dena».

Beste ikuspuntu bat

Fraisoron egindako ikastaroan mendira irteerak egin dituzte. Andantza aldean eta Lazkao mendian izan dira. Hainbat animaliren aztarnak aurkitu dituzte: basurdea, orkatza, azkonarra, katajineta, katagorria, zapoa... Azkonarrenean gorotza eta habia ere ikusi dituzte, besteak beste.

Xabier Murumendiaraz Fraisoroko irakasleak azaldu duenez, «ikasleak txundituta geratzen dira irteeretara joaterakoan. Ez zaie aurretik burutik pasa lurrera begiratzea, oinatzak eta beste aztarnak begiratzeko. Ikastaroa egin ondoren, beste ikuspuntu bat izaten dute mendiaz eta naturaz».

Hain justu, ikastaroak emate-tik gustatzen zaion gauzetako bat, zenbait ikasleengan sortzen duen interesa izaten da: «Ideia batekin geratzen dira: animaliak hori ez duela dio Sanzek: «Egunez lan egiten du, eta ez daki gauzez gertatzen den. Gainera, aztarnak eta oinatzak irakurtzen ez dakenez, agian ez daki bere ganbaran lepozuri bat duela». Tolosaldean hainbat animalia bizi direla azaldu du: azkonarra, lepozuria, katajineta, basakatua, erbinu-

Sanz autodidakta da, eta ugaztunen aztarnei buruz liburu bat argitaratu du. Gaiaren inguruan ez dagoela beste lanik dio. «Aditu



Fraisoroko ikasle bat animalien aztarnak begiratzeko hesi batean. HITZA

gutxi daude ugaztunetan; gehiago dira txorietan adituak. Txorriak ez dira hain ezkutuan egoten, ugaztunak bai». Ugaztunei buruz jakitea zaila dela esan du, aztarnatzea egin behar delako. «Hemen ez da horrelako praktikarik egiteko ohiturarik izan. Filmetan ikusi ohi dena, indiarrek animalien aztarnak jarraituz, hemen ez da inoiz hori egin».

Bertan duguna ez dugula eza-gutzen gaineratu du Sanzek: «Jendea Tailandira joaten da, Keniara, Yellowstonera hartzak ikustera... Baina dena hemen dugu. Iberiar penintsula munduko lekurik zoragarriena da. Klima eta fauna guztiak daude, Europakoa eta Afrikakoa, eta tarte-an distantzia handirik gabe. Hemen duguna ikusgarria da».

Beti nahi
jatekoa

Garaian
garaiko janariak
Arraikietan berezia

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementei kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Irudia > Villabona



BRONTZEKO TXAPELDUN

Espainiako eskolarteko halterofilia txapelketa jokatu zen Madrilén, eta Danok Danena taldeko pultsulariek emaitza paregabeak lortu zituzten, brontzezko domina bana lortu baitzuten. Alebin nesken mailan, Fleming ikastetxeko Aynabel Davilak hirugarren egin zuen; adin bereko mutiletan, Xabier Amonarriz asteasuarrak postu berean amaitu zuen; eta infantil mailan, Jesusen Bihotza Ikastolako Jokin Aranburuk lortu zuen hirugarren brontzezko domina. HITZA

Irudia > Tolosa



IRENE CAMINOS, GARAILE

Irene Caminos gazteak, Junior-Senior mailako Gipuzkoako Trialsin Txapelketa irabazi du, txapelketa amaitzeko jardunaldi baten faltan. Oñatin garaile izan ondoren, pasa den asteburuan, Urretxun lehen postuan sailkatu zen berriz ere, eta txapelketa da jada. Gainera, datorren igandean, Tolosan jokatu den azken jardunaldia. Hau amaitu bezain laster, Euskadiko txapelketa, zein Espainiako beste jardunaldi batzuk jokatu ditu Caminosek. HITZA

Gutuna

Auto konpostatu nahi dugu

Aste honetan irakurri behar izan dugu Tolosa Zero Zaborren ekimenez eta Laskorain ikastolarekin elkarlanean eginiko hondakin organikoaren prebentzio lana, udalarekin, Bildu eta hondakinaren bilketa sistemarekin nahastu nahia.

Tolosa Zero Zaborren helburua zaborrik ez sortzea da, hondakinak ahalik eta hobekien kudeatzea bigarren helburu bat da, gure filosofian lehen hondakinik ez sortzea baita. Sortzen ez den hondakina ez baita ez bostgarrenge ez zazpigarrenge edukiontzian bota behar.

Bide horretatik auzo konposta sustatzeko kanpaina jarri genuen martxan udazkenean, udala presionatu genuen horretarako; eta inauterietan kilometroetako tabernan sortutako 170kg hondakin organiko konpostatzeko konpromisoa hartu dugu... eta abar luze batek jarraituko du 2013an. Betiere helburu berberarekin, zaborrik ez sortzea eta ahalik eta hondakin gutxien sortzea. Hala ere, konstatatzen jarraitzen dugu horrelako idatziekin, oraindik ezin dutela ulertu zaborrak sortzea dela gure gizartearen arazoa, horiek hondakin bihurtu eta ongi kudeatzea dela gure herritarren ardura, beraz, hondakin organikoa (eta ez zabor organikoa) prebenitzeko aukonpostata edo auzo konpostata dela sistemarik egokiena; hori idatziaren sinatzaileak ere badauki.

Beraz bi kontu, bosgarren edukiontzia, atez atekoa, zero zabor, udala eta mankomunitatea nahastan dibilen horretarako: bat, organikoa ongi kudeatu nahi baduzu eman izena auzo konpostan edo auto konpostan, hori da bide egokiena eta, hondakina ongarri bihurtuz eta herritarrei ikaragarritako aurrezki ekonomikoa emanaz. Eta bi, gure ekimen "testimonialak" ez dute amaierarik, gure helburua ahalik eta zabor zein hondakin gutxien sortzea den heinean beti egongo gara edozeinekin elkarlana sustatzeko prest helburu hau lortzeko; mesedez, hurbildu guregana eta egingo ditugu hondakinak prebenitzeko ahal ditugun ekimen guztiak, hori bai, inoren ekimenik itxaron gabe ekingo dugu. Azkenik, aurrekoan esan bezala, guk gure ekimena gorapatzen jarraitzen dugu. Inauterietan Tolosan txukun zegoen gune bakarra Tolosa Zero Zaborrek eta Laskorain Ikastoladek elkarlanean hondakinak kudeatutako taberna izan zela.

■ **Orkatz Goenaga.** Tolosa Zero Zabor

Foru Aldundiak antolatutako udaleku irekietan izena emateko epea, zabalik da

Interesatuek, Tolosako kultur etxean dauden eskaera-ordriak bete beharko dituzte hilaren 24a baino lehen

M. Iraola Tolosa

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek elkarlanean antolatzen dituzten udaleku irekietan emateko epea zabalik da jada. Zazpi eta hamairu urte bitarteko umeei zuzendutako jardura ludiko hezigarrietan oinarritutako udalekuak dira. Interesatuek, hilaren 24a baino lehen eman beharko dute izena Tolosako kultur etxean. Eskaearak, banana zein taldeka egin daitezke. Talde bakoitzeko, hiru neska-mutil onartuko dira gehienez, eta plaza lortzeko orduan, aukera berdintasuna bermatzearen, ume bakoitzeko eskaera-orri bakarra onartuko dute. Zozketarako onartutakoek izena apirilaren 8an bistaratuko dituzte. Zozketa, baina, apirilaren 11n egingo da jendearen agerian. Plaza lortu dutenek, behin betiko izen ematea, apirilaren 15etik 22ra egin beharko dute.

Bai Euskal Herriariren eskaerak onartu dituzte



Martxoan, ikurrinaren alde egindako 6x3ko murala. HITZA

Euskal Herriaren eta ikurrinaren aldeko herri ekimenak aurkeztutako aldaketak onartu ditu Villabonako udalak

Mikel Iraola Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak, Bai Euskal Herriari ekimenak, ikurrinaren alde proposatu zituen eskaerak onartu ditu. Otsailean, lau puntuko proposamena aurkeztu zuen herriko ikurrinaren aldeko, eta Espainiako bandera jartzeko inposaketaren aurkako taldeak. Lau eskaera horietan, Euskal Herriaren eta ikurrinaren defentsa egiteko irtenbideak ematen zituzten: kale izendegian Euskal Herria izena

edota zazpi herrialdeenak sartztea; kaleren bati izena aldatzea; herriko sarreretako seinaleetan, *Ongi Etorri Billabonara*, *Ongi Etorri Euskal Herrira* mezuarekin batera armarraren irudia ipintzea; udalaren helbidean, baita paper ofizialetan ere, armarrarekin batera, Euskal Herria terminoa erabiltzea; eta herriko leku esanguratsuenetan ikurrinaren presentzia bultzatzea. Udala, eskaera horiek onartu, eta une honetan, aldaketa horiek kudeatzen ari dira. Epe laburrean aldaketak nabaritutako direla adierazi dute Bai Euskal Herriari ekimenetik. Era berean, udalaren erantzuna txalotu nahi izan dute ekimenekoek, «herriaren nahia horixe delako». Gainera, elkarlan hau beste herrietara zabaltzeko deialdia luzatu nahi izan dute.

→ Laburrak

Igandean, Korrikaren azken jaira joateko autobusa

TOLOSA > Igandean, Baionan ospatuko den Korrikaren azken jaira joateko autobusa antolatu dute. Santa Klaratik aterako da goizeko 09:30ean, eta txartelak salgai daude Raku eta Ikatz tabernetan hamar euroren truke.

Leaburura mendi irteera gaztetxoentzat, igandean

TOLOSA > Datorren igandean, mendi irteera antolatu du Atsedena taldeak hirugarren eta seigarren maila bitarteko gaztetxoentzat. Leaburura joango dira mendiz. Gaur da izena emateko azken eguna, eta interesatuek 675 706 654 edo 627 122 073 telefonora deitu behar dute.

Tolosa eta Anoetako jai batzordeen bilerak

JAIK > Tolosako jai batzordeak San Joan jaien inguruan hitz egiteko bilera egingo du, gaur, 19:00etan Plaza Berriko Abastos eraikinean. Anoetako jai batzordea, berriz, bihar elkartuko da, herriko festen inguruan mintzatzeko. Hitzordua, 18:00etan izango da udaltxe- an, eta herritar orori irekitako deialdia dela azpimarratu du udalak.

Bedaioko kultur ekitaldien bigarren hitzordua emakumeentzat izango da

Artubi Kultur Elkarrekin urte guztiko ekimenak aurkeztu ditu; hilaren 23an emakumeentzat afaria egongo da

Asier Imaz Bedaio

Bedaioko Artubi Kultur Elkarrekin urte guztiko ekimenen egitaraua aurkeztu du. Martxoaren 2an jarri zuten martxan, Barrikotearekin, eta abenduaren 24an emango diote amaiera, baserri baserri kopia zaharrak kantatzen

ibili ondoren. Tartean, eta denboran hurbil, bigarren hitzordua dago: larunbat honetako emakumeen afaria.

Hasiera batean maiatzean ospatzen zen afaria, baina urte guztiko agenda osatze aldera, martxoan kokatu zuten zita berezi hau. Gizonak bertan izango dira, baina lanean. Emakumeek aldiz, elkarrekin egoteko eta gozatzeko aukera izango dute. Sorpresarik ez dela faltako ere azaldu dute Artubi Kultur Elkartetik. Azkenik, Bedaiotik martxoaren 23ko zitara emakume guztiak gonbidatu dituzte.



Urtea «indartsu» hasi zuten Bedaioko herritarrek, barrikotearekin. HITZA

→ Laburrak

Gurasoentzat ikastaro tailerra antolatu dute

ALEGIA ▶ Beldurrak haurtzarozan izeneko ikastaro tailerra antolatu dute Alegiako Kultur Etxean, bihar, hilaren 21ean, Iturri Zahar Guraso Elkartetik. Iñaki Saenzek zuzenduko du 19:00etan hasiko den ikastaro tailerra, eta bertan, besteak beste, ondorengo gaiak landuko dituzte: Zergatik agertzen dira beldurrak haurtzarozan, eta nola jokatu; beldurra, antsietatea, eta ikara eta nola garatzen diren beldurrak. Guraso elkartetik guraso guztiak gonbidatu dituzte ekimenera.

Udal zinegotzien dietak aztergai, ez ohiko bilkuran

AMEZKETA ▶ Udalbatzak ez ohiko bilkura egingo du bihar, hilaren 21ean, Amezketan. 20:30ean hasiko da batzarra eta besteak beste ondorengo gaiak jorratuko dituzte: Udal zinegotzien dietak; 197/2006 doktrinaren inguruko mozioa eta Nazioa gara, ikurrina, inposaketarik ez mozioa.

Azken ostiraleko elkarretaratzea, etzi

BIDEGOIAN ▶ Azken ostiraleko elkarretaratzea aurreratu egin dute Bidegoianen. Hil honen amaieran Aste Santuak izaki, hilaren 22an egingo dute Herriatik antolatutako elkarretaratzea, Bidaniako frontoian aurreko plazan, 19:00etan.

↓ Urteko egitaraua

MARTXOAK 23, LARUNBATA

■ **Afaria.** Emakumeek afaria egingo dute Abaetxe Jatetxean. Dantza, musika eta abarrekin.

APIRILAK 27, LARUNBATA

■ **Irteera.** Sagardotegira irteera egingo dute, bertakoaz gain, inguruko gozatzeko asmoz.

MAIATZAK 16, OSTEGUNA

■ **Harri jaia.** Bertsolari eta trikitalariz alaiturik ospatuko dute jai berezi hau. Eguraldia, uzta eta erlijioa uztartzen dituen ohitura da Harri jaia, Artubikoaren esanetan.

MAIATZAK 18-19

■ **Asteburu kulturala.** Kontserbak nola egin; erleen inguruko hitzaldia; haur eta gazteentzako ekintza bereziak...

EKAINAK 2, IGANDEA

■ **VI. Mendi Martxa eta V. BTT.** 6-8 orduko mendi martxa oinez eta 4 orduko itzulia BTT proban.

UZTAILAK 28, IGANDEA

■ **Ez dauden herritarrei omenaldia.** Herrian ez daudenak gogoratuko dituzte. Lehenik mendi irteera egingo dute, eta ondoren, afaria eta bertsuak egongo dira.

IRAILAK 6-7-8

■ **Jaiak.** Bedaioko Jaietan, urtero bezala, hainbat ekitaldi egongo dira, besteak beste, Jubilatua Eguna, Bedaioko Ingurutxoak, haur jolasak, herri afaria, eta txirindulari igoera.

IRAILAK 29, IGANDEA

■ **VI. Bedaioko Raid-a.** Zaldiak protagonista izango dituen proba. Natura eta kirola uztartuz, inguruneaz gozatzeko aukera.

URRIAK 5, LARUNBATA

■ **Afaria.** Jaien ondorengo afaria. Bertan, jaien inguruko balentzea egingo dute.

AZAROAK 10, IGANDEA

■ **Azoka Berezia.** Bertako produktua eta abereekin.

AZAROAK 23, LARUNBATA

■ **Irteera.** Errioxako bodegak ezagutzeko aukera.

ABENDUAK 7, LARUNBATA

■ **Mus Txapelketa eta gaztainak.** Karta jokoaren ondoren afaria gaztain erreekin.

ABENDUAK 24, ASTEARTEA

■ **Kantuan.** Kopia zaharrak kantatzera baserri baserri.



harpidedun izateak badu saria

zozketa

1 Ostatu Hernialde Jatetxea Bi laguntzako bina bazkari edo afari

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

Hernialde
Tel.: 943 65 24 96



2 Euskal Herriko Plaza Sorta bat

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52



www.euskalherrikoplaza.com

3 Eureka zientzia museoa Bi laguntzako bina sarrera

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

Mikeletegi pasealekua, 43-45
Tel: 943 01 24 78
www.eurekamuseoa.es



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 edo sartu tolosaldea.hitza.info helbidean ZOKZETAK atalean. Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedun
TXOKOAK hitza

Ines del Riores auzia berraztertuko du gaur Europako Giza Eskubideen Areto Nagusiak. Honen harira, Tolosan, 19:30ean, eta Leitzan, 20:00etan, manifestazioak egingo dituzte 197/2006 doktrinaren aurka. Onintza Ostolaza abokatua eta Oihana Barrios psikologoa, gai hauen inguruan mintzatu ziren Herrira-k antolatutako hitzaldian.

Onintza Ostolaza • Abokatua

«Ez dira egun batetik bestera kalean izango doktrina aplikatu zaien presoak»

Mikel Iraola

Onintza Ostolaza (1982, Oiarzun) abokatua da, eta gertutik jarraitzen ari da 197/2006 doktrina aplikatu zaien presoaren egoera.

Zer da 197/2006 doktrina?

Auzitegi Gorenak, 2006an, Unai Parot preso aske gera ez zedin, sortu zuen interpretazioa da. Ordura arte, gehieneko 30 urteko zigorra zuten presoek neurri aringarriak aplikatzen zitzaizkien, eta doktrina honen bitartez, aringarriak eraginik gabe utzi eta preso bakoitzak zigorra bere osotasunean bete beharko zutela zioen.

Eta hori 2006tik aurrera kondenatu zituztenei aplikatu zitzaizen?

Ez. Atzerako eragin kortasunez ere aplikatu zen urte hori baino lehenago kondenatu zituzten presoekin, eta hori da interpretazio honen punturik larriena.

Zein izan da doktrinaren bilakaera?

Doktrina aplikatzeak, espetxeko irteera data jada zehaztua zuten preso askori kondenak luzatzea eragin zuen. Helegiteak egin genituen Auzitegi Gorenean eta Konstituzionalean, lehengo urteko martxora bitartean. Konstitu-

zionalak, ordea, doktrina konfirmatu zuen, eta Europarako saltoa eman genuen, Ines del Riores kasuarekin adibidez.

Zertan da Inesen kasua?

Estrasburgoko epaitegiko bost epailek, doktrina modu horretan ezin aplikatu zitekeela zioen ebazpena eman zuten. Sententzia horrek bide asko ireki zitzaizkien, eta gainontzeko presoei aplikatuzazteko eskatu genuen. Espainiak, ordea, helegitea jarri zuen, eta Auzitegi Gorenak eta Konstituzionalak, Inesen epaia irmoa izan arte ez zutela aplikatuko esan zuten. Gaur bertan izango da azken batzarra.

Beraz, gaur emango dute epaia?

Ez. Gaurkoa bista publikoa besterik ez da. Espainiak eta Inesen defentsak 17 epaileren aurrean beren argudioak eman beharko dituzte. Ondoren, epaile horiek epe bat irekiko dute sententzia emateko, baina ez dakigu zenbatekoa izango den. Baliteke hilabetez hitz egiten egotea. Beraz, momentuz, Ines ez da aterako, eta gainontzekoak, are gutxiago.

Espainiatik presioa egiten ari duzela esan du. Fernandez Diaz ministroa



ASIER IMAZ

«lobby garden» bat egiten ari direla esanez agertu da, eta AVT plataforma ere, sinadurak biltzen ibili da. Zenbaterako eragina izan dezake honek Europako epaitegiarengan?

Ez dakit, baina dituzten mekanismo politiko guztiak erabiliko dituzte emaitza aldekoa izateko. Baina gureari begiratuz, juridikoki oinarri ona dugula uste dut. **Zertan oinarritzen da Espainia doktrinaren alde egiteko?**

Zigorraren exekuzioa, hau da, zigorra betetzea, bere eskuduntzapean dagoela aldarrikatzen dute. Europa mailan, estatu bakoitzari

dagokio, eta Espainiak hori mantendu nahi du. Baina Europako epaia ere horri erantzuten dio.

Zer esatendu, ba?

Atzeraeragintasan printzipioa urratzen duela dio, eta zigorra betetzeko kriterioak, hau da, legea aldatuz, kondena bera aldatzea ezinezkoa dela.

Ze eragin izango lituzke kontrako epaia?

Juridikoki biderik geratzen ez dela esan daiteke, azken urratsa baita Europakoa. Politikoki edo sozialki beste bide batzuk jorratzen hasi beharko liriteke.

Eta ebazpena aldekoa izango balitz?

Oso berri ona izateaz gain, sekulako tresna da. Baina horrek ez du esan nahi egun batetik bestera, doktrina aplikatu zaien preso guztiak kalean ikusiko ditugunik. Gainera, bi eremu bereizi behar dira: Ines eta gainontzekoak. Inesen kasuan, nahiko nabaria da aske utzi beharko dutela. Bestekin, ordea, Espainian Europako sententzien aplikaziorako legedirik ez dagoenez, ezin dugu ziurtasunez jakin zer gertatuko den. Bana-banako lanketa egin beharko da, eta Espainiako epaitegietan beren askatasuna eskatu.

Ze bide jarraitu beharko luke, adibidez, Pello Odriozola tolosarrak?

Europara errekurritu da berak ere, baina tramiteak luzerako ematen dutenez, ez dugu bakoitzarekin asko itxaron nahi. Izan ere, ordurako, baliteke 30 urteko zigorra jada beteta izatea. Horregatik, Inesen sententzia aldekoa bada, aplikatzeko eskatuko diogu zuzenean Espainiari.

Espainiak dio, Europak baiezkoa emango balu, 75 preso inguru aterako liritekeela kalera...

Horrela bada, bikain. Baina ez dugu borondaterik ikusten.

Egongo al dira kalte-ordainak?

Inesen kasuan, Europako sententziak baiezkoa zioen. Konfirmatuz gero, ordaindu beharko diote. Gainontzekoen kasuan, bana-banatan aztertu beharko liriteke, Espainiak ez baitu bere borondaterik kalte ordainik emango-eta.

Oihana Barrios • Psikologoa

«Doktrinarena ez da 70 izen-abizenen arazoa soilik, gizarte osoarena baizik»

M. Iraola

Oihana Barrios (1980, Iruñea), berriaz, Jaiki Hadi mediku elkarteko psikologoa da. Espetxe zigorra luzatu dieten euskal preso politikoei aritu da lanean.

Nola eragin diezaioke preso bati 197/2006 doktrina aplikatuko diotela esateak?

Lehenengo eta behin, kolpe izugarria da. Ulertu behar dena da, presoak kaleratze-data gertu ikusten duen unean, mentalitatea aldatzen duela. Kanpoko bizitza antolatzen edo proiektu bitalez aitatatasun edo amatasuna esaterako-hausnartzen hasten da. Ariketa mental hori puskatzean, atzera egin eta dena berregokitu behar dute. Horrelako karga bat eramatea zaila da. Zigorraren arabera, karga ere bada, ez baita gauza bera,



A. IMAZ

urte baten faltan, edo hilabete baten faltan gertatzea.

Fisikoki edo psikologikoki efekturik ez izaten dute?

Hasiera batean ez du eragin pato-

logikorik uzten, baina bai bestelako sintomak. Adibidez, antsietate arazoak, urduritasuna, tristezia, galduta sentitzea, eta batez ere, ezinezona.

Zein lan psikologiko egiten duzue kondena luzatu diotela esan dioten preso batekin?

Familiaren erantzuna neurrian hartzea eskatzen duen lanketa luzea eta gogorra da. Mezu itxaropentsuegiak ez helaraztea garrantzitsua da. Adibidez, gaurko epailetarekin gizartean, nolabaiteko itxaropena sortu da, baina beraiekin beste modu batetara jokatu behar dugu. Izan ere, epaia nahi bezalakoa ez bada, karga hori berriro barrura eraman behar izatea, zama handia egiten baita.

Familia aipatu duzu. Zer garrantzia du prozesu horretan?

Presoek sarritan esan izan digute, ez garela beraien buruaz hainbeste arduratu behar, beraien senide-etaz baizik. Ingurukoak ondo egoitea oso lagungarria zaie presoei, eta hobeto sentitzen dira.

Eta gaurkoa bezalako epaiteki, berriaz, nola egiten diezue aurre?

Tramiteak luzerako ematen dute, eta denbora horretan pazientziatz jokatu eta errealistak izan behar gara. Guk hasiera batean, Jaiki Haditik gutun bat bideratzen diegu doktrina aplikatzen zaien guztiei esku luzatuz, eta gerta litezkeen sintomen berri emanaz. Krisiren bat izaten badute hor gaude laguntzeko. Ondorengo berregokitzen prozesuan ere laguntzen diegu.

Orokorrean, zer jarrera dute presoek laguntza horren aurrean?

Asko eskertzen dute, baina militantziatz jokatzeko dute askok egoerari aurre egiteko. Kolektibo baten parte sentitzeak ere indarra ematen die. Gizartearen bultzada ere ezinbestekoa zaie.

Eta nola jokatu behar du gizarteak?

Eranztun maila handitu beharko luke. Pentsatu behar dugu hau ez dela 70 norbanakori eragiten dien arazo bat, gizarte oso bati eragiten diona dela baizik. Azken finean, heriotz zigor bat da «de facto», eta gure esku dago gure gizartean horrelako zerbitu onartuko ote dugun edo ez erabakitzea.

Irudia ◊ Ibarra**ALURREKO DANTZARIAK ZALDIBIAN**

Alurr dantza taldeko kideak Zaldibian izan dira iragan asteburuan. Batetik, larunbatean egin zuten dantzarien topaketan parte hartu zuten. Bertan, 95 dantzari aritu ziren, Ibarakoak, Ordiziakoak eta Zaldibiakoak, denak irakasle berarekin ari-

tzen dira dantza eskoletan. Bestetik, igandeko Dantzari Txiki egunean ere izan ziren. Goizean dantza egin zuten, eta Zaldibian bertan bazkaldu eta gero, erromerian parte hartu zuten dantza talde guztiek arratsaldean. HITZA

Atez atekoaz eta auzo konpostaz bilerak izango dira hainbat herritan

Gizarteratze prozesua martxan da Alegian, Amasa-Villabonan, Anoetan, Iruran eta Zizurkilan

I. Terradillos

Alegia, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura eta Zizurkilan atez ateko hondakin bilketaren aldeko apustua egin dute, «birziklatze emaitzengatik». Bada, herri horietan gizarteratze prozesua jarri dute martxan, eta informazio bulegoak ireki dituzte. «Herritarrei herrietan egingo diren aldaketan berri eman, eta kezka eta zalantzak argitzea» dute helburu.

Iragan astean hasi ziren gizarteratze prozesuaren hitzaldiekin, eta Tolosaldeko Mankomunitateak adierazi dutenez, «herritarren parte hartzea altua izan da». Bileretan biztanle bakoitzari bere hondakinak non utzi behar diuen erakusten zaio, eta herritarrek euren proposamena egiteko aukera dute, apirilaren 12ra arte informazio bulegoan aurkeztuz.

Hurrengo bilerekin dagokienez, Anoetan, Hozpel, Isasti, Errotarburu eta San Juan kaleetako bizi-lagunek gaur izango dute bilera, 19:00etan, eta hilaren 23an, Errotaldea, Idiakaitz, sakabanatua, Argoin eta apeadero koentzat izango da, 09:30ean gaztelera, eta 12:00etan euskaraz. Udaletxean izango dira bilera guztiak.

Amasa-Villabonan, elizatik kale Berri amaierara artekoentzat izango da, gaur (euskaraz) eta bihar (gaztelera), 19:00etan Mintzolan. Zizurkilan, bestalde, gaur (gaztelera) Bulandegi Bide-akoak, eta bihar (euskaraz) Ihar-tza-Sakabanatuakoak daude deituta, 19:30ean, Atxulondon.

Ibarran, auzo konposta

Bestalde, Ibarako Udalak auzo konposta egiteko bi gune jarriko ditu, eta herritarrek animatu nahi dituzte parte hartzerantz. Martxoaren 27ra arteko epea dago izena emateko. Auzo konpostaren nondik norakoan berri emateko hitzaldia izango da, gaur (euskaraz) eta bihar (gaztelera), kultur etxean, 19:30ean hasita.

Ezker abertzaleak mobilizazioetara deitu ditu leitzarrak

Leitzar gazte batek deklaratu du gaur Iruñeko auzitegian, greba orokorreko gertakariengatik

I. Terradillos Leizta

Azken greba orokorraren bezperan jazotako gertakarien harira, Leitzako gazte batek deklaratu du gaur Iruñean, eta hori dela eta, Leitzako ezker abertzaleak mobilizazioetara deitu ditu herritarrik. «Gazteari babesa adierazi eta eraso salatze».

Batetik, leitzar gaztea deklaratu ari den bitartean, elkarretaratzea egingo dute, Iruñeko epaitegiaren aurrean, eta bestetik, bihar, elkarretaratzea egingo

dute Leitzan, 19:00etan plazan. Ezker abertzaleak adierazi dutenez, hainbat delitu egotzen dizkiote leitzar gazteari, «inolako frogarik gabe». Hori dela eta, «Leitzako gazteariaren aurkako eraso» baten aurrean aurkitzen direla salatu dute, «horrelako inputazio eta ekintzek argi uzten baitute estatuarentzat zein kapitalarentzat gazteak deserosoak direla». Hala, horrelako «erasoen» aurrean «herri-harresi bat eraiki eta babesa eta sostengua erakutsi» behar direla dio ezker abertzaleak. «Gazteak ez daudela bakarrik eta herri honetan bizi garenok ez dugula horrelakorik onartuko adierazi behar dugu», esan dute.

Hala, deitu dituzten bi ekintzetan parte hartzeko deia luzatu diete herritar guztiei.

→ Laburrak**Erga mendira irteera antolatu du Mendibilek**

LEITZA ◊ Leitzako Mendibil menditaldeak martxoan mendira irteera antolatu du larunbat honetarako. Irurtzundik irteerako dira, Erga (1.094m) mendia igoko dute, eta berriro Irurtzuna itzuliko dira. Mendi taldeak azaldu dutenez, zailtasunik gabeko ibilbidea da, eta hiru ordu eta erdian egiteko modukoa. 08:30ean jarri dute hitzordua Oialde parean, eta 13:00ak aldera itzuliko dira. Parte hartu nahi duenak 10 euro ordaindu beharko du (Aurrerako bazkideek, 5 euro), eta Astiz eta Maimur dendetan edo mendibilaurrera@hotmail.com helbidean egin ahalko da, bihar izango delarik azken eguna.

Herri batzarra egingo dute etzi, udaletxean

BERASTEGI ◊ Udalak herri batzarrera deitu ditu herritarrik. Etzi izango da, 21:00etan hasita, udaletxeako pleno-aretoan. Bertan, ondorengo gaiak jorratuko dituzte: udaletxe eraberritua; etxebizitza tasatuak; hondakinen kudeaketa eta langileen kontratazioa. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

Elkartasun bazkaria izango da igandean

LIZARTZA ◊ Elkartasun bazkaria egingo dute datorren igandean, martxoaren 24an, Lizartzako frontoian. Bazkarira joateko zerrendak Ibarako Subegin, Tolosako Rakun, Villabonako Iratzen eta Lizartzan bertan jarri dituzte. Antolatzaileek Lizartzara 12:00etarako azalzteko eskaera egin dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



GOIZA	OSTARTEAK
ARRATSALDEA	LAINOLTA
BEROENA	21°
HOTZENA	16°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibaraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Ibarra



IKASLEEK 150 LIZAR LANDATU DITUZTE

Eguraldi txarra medio, atzeratu egin behar izan zuten eguna, eta Ibarra Udalak atzo egin zuen Zuhaitz Eguna. 2012ko irailean hasieran betelanak egin ziren Kiroldegiaren atze aldeko lursailen, eta zuhaitzen landaketarekin lur hori egonkortu nahi izan dute. 150 lizar landatu zituzten Uzturpe Ikastolako ikasleen laguntzarekin. Lizarren

landaketa 5 urtetik DBH 2 maila bitarteko ikasleen ardura izan zen. Lizarra aukeratzearren arrazoiak ere eman dituzte: «Zuhaitz arrunta da, eta baso mistoetan hazten da. Ibaian ertzean eta lur heze eta aberatsetan. Itzala eta temperatura beroak jasaten dituenek, hazetasunari eta pipiari oso ondo eusten dio». I.TERRADILLOS

Agurrak



Zorionak!
Anttoni Arruabarrena (Lizartza).
Gaur 94 urte! Muxu asko seme-alaba, biloba eta birloben partetik.

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurrak**

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa: Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13. Gauekoa: Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Mauka GALURKO ESKAINTZA

Udaberriko menu berezia

ALIZAKO HERRI OSTATUA
RIVIERA 2002
ALIZUA ZIARA - GIPUZKOA
Tel. 943 48 18 36
www.mauka@gmail.com
www.mauka.eu

Preskoa 25€

berria

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Anoeta.** Atez ateko hondakin bilketaren gizarteratze prozesua dela eta, gaur, 19:00etan, bilera izango da. Kasu honetan, euskaraz izango da, eta Hozpel, Isasti, Errotarburu eta San Juan kaleko bizilagunei zuzendua izango da.

■ **Amasa-Villabona.** Gaur, hondakin gizarteratze prozesuko bilera izango da Elizatik hasi eta kale amaierara bizi diren herritarrei zuzendua. Euskaraz izango da, eta 19:00etan Mintzolan izango da. 1

■ **Amasa-Villabona.** Bazkide kopurua handitzeko, hilaren 1etik Olaederra Kiroldegiko matrikulazioa dohainik da bazkide berrientzat (aurrez bazkide izan eta baja eman zutenentzat ez da doan). Tarifa berriak eta 2013ko egutegia www.villabona.net webgunean kontsultatu daiteke.

■ **Ibarra.** Auzo konpostaren inguruko hitzaldia izango da, gaur, Ibarra kultur etxean udalak antolatuta. Hitzaldi informatiboa izango da euskaraz herritarrentzat, eta 19:30ean izango da.

■ **Tolosa.** Igandean Baionan bu-

katuko da 18. Korrika. Bertan egingo den azken jaira joateko autobusa antolatu dute Tolosan. Txartelak salgai daude Raku eta Ikatza tabernetan, 10 euroan. Autobusa Santa Klaratik aterako da 09:30ean.

■ **Tolosa.** Atsedena taldeak mendi irteera antolatu du Leaburura hilaren 24rako. 3. mailatik 6. mailara bitarteko gazte-txontzat izango da. Izena emateko azken eguna da gaur, eta 675 70 66 54 edo 627 12 20 73 telefono zenbakietara deituz egin behar da.

■ **Tolosa.** Gaur, Jai batzordearen bilera izango da, 19:00etan, Plaza Berriako Abastosen. Jorratuko duten gaia San Joan jaiak izango da. Herritarrei bertan parte hartzeko deia egiten zaie.

■ **Zizurkil.** Gaur, 19:30ean, hondakin biltzeko sistema berriaren gizarteratze prozesuaren baruan bilera egingo dute. Buzlandegi bidetako bizilagunentzat izango da gaztekeraz Atxulondon, eta 19:30ean egingo dute.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** *Salam. Beste kultura batzuei irekitako leihoa* erakusketak dago ikusgai Tolosako Aranburu Jauregian.

Egin HITZAREN HARPIDEDUN
otsailaren 1etik martxoaren 31ra arte, ETA JASO

EKAIN sagardoa
6 botilako kaxa bana

Harpidedun egiten diren gutzien artean

Orduñako Aisia hotelean, bi pertsonarentzako asteburu baterako egonaldia ZOKATUKO DUGU

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza